Iragarkiak

Obra, Zerbitzu eta Horniduren Enkanteak eta Lehiaketak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

1601

EBAZPENA, 2011ko otsailaren 21ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza, eta Arrantza Saileko Zerbitzu Orokorren zuzendariarena, 2011ko ekitaldirako Nekazaritzako Kontabilitate Argibideetarako Euskal Sarerako (NKAES) kontabilitate bulegoak hautatzeko lehiaketa publikoaren deialdia egiten duena.

Kontseiluaren 79/65/EEE Arautegiak, 1965eko ekainaren 15ekoak (1965-06-23ko EEAO, 109. zenbakia), Nekazaritzako Kontabilitate Argibideetarako Sarea sortu zuen, Europako Erkidego Ekonomikoko nekazaritza-ustiategien errentari eta ekonomiari buruzko informazioa izateko helburuarekin.

Sare horren helburua, 1.2 artikuluan adierazten den bezala, nekazaritza-ustiategien urteko errenta zehazteko eta horien funtzionamendu ekonomikoa aztertzeko beharrezko diren nekazaritzako kontabilitate-datuak biltzea da. Horrela lortutako datuekin, batzordeak nekazaritzaren egoerari eta nekazaritza-merkatuei buruzko txostenak prestatuko ditu, eta txosten horiek urtero aurkeztuko zaizkio Kontseiluari eta Europako Parlamentuari, nekazaritzako produktuen prezioak finkatzeko.

Estatukide bakoitzak bere gain hartzen ditu behaketa-eremu gisa egoki jotzen dituen nekazaritza-ustiategiak hautatzeko eta ustiaketa-fitxak betetzeko prest dauden kontabilitate-bulegoen zerrenda finkatzeko ardurak. Borondatez parte hartzea erabaki duen eta bere ustiategia kontabilitateko ustiategi gisa hautatu zaion nekazariak bere ustiaketa-fitxa betetzeko prest dagoen bulegoa aukeratuko du horretarako ezarritako zerrendatik. Urtero, Estatukide arduradunak kontratu bat egingo du nekazariak hautatutako kontabilitate-bulegoekin, eta oroharreko zenbateko bat ordainduko zaio horregatik.

Euskal Autonomia Erkidegoan, legeria hau Nekazaritza eta Arrantza Sailaren 1985eko irailaren 25eko Aginduaren bidez egokitu eta garatu zen (1985-10-03ko EHAA, 201. zenbakia). Agindu horren bidez sortu zen Nekazaritzako Kontabilitate Argibideetarako Euskal Sarea (NKAES), Euskal Au-

Anuncios

Subastas y Concursos de Obras, Servicios y Suministros

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

1601

RESOLUCIÓN de 21 de febrero de 2011, del Director de Servicios del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se convoca concurso público para la selección de oficinas contables para la Red de Información Contable Agraria Vasca (RICAV) para el ejercicio de 2011.

El Reglamento n.º 79/65/CEE del Consejo, de 15 de junio de 1965 (DOCE n.º 109 de 23-06-1965), creó la Red de Información Contable Agraria (RICA), con la finalidad de disponer de información sobre la renta y la economía de las explotaciones agrícolas en la Comunidad Económica Europea.

El objetivo de dicha red, tal como se señala en su artículo 1.2, es recopilar los datos agrícolas contables necesarios para, en particular, determinar anualmente la renta de las explotaciones agrarias y el análisis del funcionamiento económico de las mismas. Con los datos así obtenidos, la Comisión elaborará informes sobre la situación de la agricultura y los mercados agrícolas, informes que se presentarán anualmente al Consejo y al Parlamento Europeo para la fijación anual de los precios de los productos agrícolas.

Cada Estado miembro asume la responsabilidad tanto de seleccionar las explotaciones agrícolas que considera adecuadas como campo de observación, como la de fijar la lista de las oficinas contables dispuestas a cumplimentar las fichas de explotación. El agricultor que haya decidido participar voluntariamente en esta red de información y cuya explotación haya sido seleccionada como explotación contable, elegirá entre la lista establecida para tal fin aquella oficina que esté dispuesta a rellenar su ficha de explotación. Anualmente, el Estado miembro responsable celebrará un contrato con las oficinas contables elegidas por el agricultor recibiendo por ello una retribución a un tanto alzado.

En la Comunidad Autónoma de País Vasco esta legislación ha sido adaptada y desarrollada a través de la Orden de 25 de septiembre de 1985, del Departamento de Agricultura y Pesca (BOPV n.º 201, de 03-10-1985), por la que se crea la Red de Información Contable Agraria Vasca (RICAV), como sistema

tonomia Erkidegoko nekazaritza-ustiategi mota desberdinen errentei eta funtzionamendu ekonomikoari buruzko beharrezko informazioa ematera bideratutako sistema gisa.

Aurrez aipaturiko Aginduaren 8. artikuluaren arabera, EAEko kontabilitateko ustiategiek kontabilitate-bulego baten zerbitzuak erabiliko dituzte NKAESko zereginetarako. Bulego horiek Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak hautatzen ditu urtero lehiaketa publikoaren bidez, eta ustiaketen fitxak egitea kontratatzen du haiekin, oro harreko zenbateko bat ordainduta.

Horiek horrela, eta Nekazaritza eta Arrantza Sailaren 1985eko irailaren 25eko Aginduaren 8. artikuluan ezarritakoa betez, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– 2011ko ekitaldian Nekazaritzako Kontabilitate Argibideetarako Euskal Sarerako (NKAES) nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategietako kontabilitate-emaitzak eta -informazioa lortzeko laguntza teknikoko lanak egiten dituzten kontabilitate-bulegoak hautatzeko lehiaketa publikoaren deialdia egitea.

Bigarrena.– Nahi duten pertsona fisiko edo juridiko, erakunde pribatu edo nekazaritzako erakunde guztiek parte hartu ahal izango dute, betiere jarraian adierazitako baldintzak betetzen badituzte:

1.– Pertsona juridikoa izatea, dagokion Erregistro Ofizialean behar bezala inskribatua, edo enpresaburu indibiduala izatea eta Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta egotea.

2.– Lana behar bezala gauzatzeko behar beste elementu pertsonal eta material dituen erakundea dela egiaztatzea.

3.– Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailean nekazari kolaboratzaileen idatzizko konpromisoa aurkeztea, bertan adieraziz ados daudela kontabilitate-bulego horrek beren ustiategiaren emaitza teknikoak eta kontabilitateari dagozkionak aztertzeko eta, estatistika-sekretuaren pean, NKAESari helarazteko helburua izatearekin, ebazpen honen II. eranskinaren arabera.

4.– Gutxienez hirurogei nekazari edo abeltzainen adostasuna lortzea beren ustiategien kontabilitatea kudeatzeko.

Hirugarrena.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Epea. Kontabilitate-bulego gisa hautatzeko eskabideak aurkezteko epea hogei egun baliodunekoa da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren.

2.– Tokia: exijitutako eskabideak eta dokumentuak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Erregistroan aurkez-

destinado a proporcionar la información precisa sobre las rentas y el funcionamiento económico de los diversos tipos de explotaciones agrarias en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Conforme al artículo 8 de la precitada Orden, las explotaciones contables de la CAE utilizarán los servicios de una oficina contable para las tareas de la RICAV Estas oficinas deben ser seleccionadas anualmente por la Dirección de Servicios Generales mediante concurso público, contratando con ellas la realización de las fichas de las explotaciones mediante una retribución a tanto alzado.

En su virtud y en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 8 de la Orden de 25 de septiembre de 1985, del Departamento de Agricultura y Pesca,

RESUELVO:

Primero.– Convocar concurso público para seleccionar oficinas contables que estén dispuestas a rellenar la ficha de explotación para la obtención de la información técnica, financiera y económica de las explotaciones agrarias y ganaderas del País Vasco en el ejercicio 2011 para la Red de Información Contable Agraria Vasca (RICAV).

Segundo.– Podrán concurrir todas las personas físicas o jurídicas, entidades privadas u organizaciones agrarias que lo deseen y que cumplan con las condiciones que a continuación se detallan:

1.– Ser personas jurídicas, debidamente inscritas en sus respectivos Registros Oficiales o ser empresarios individuales debidamente inscritos en el Registro Mercantil.

2.– Acreditar que se dispone de una organización con elementos personales y materiales suficientes para la debida ejecución del trabajo.

3.– Presentar ante el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura, y Pesca, un compromiso escrito por los agricultores colaboradores, en el que se señale que están conformes en que dicha oficina contable rellene la ficha de su explotación con la finalidad de analizar los resultados técnico-contables, así como de transmitirlos a la RICAV, bajo secreto estadístico, según el anexo II de esta resolución.

4.– Haber obtenido la conformidad de un mínimo de sesenta agricultores o ganaderos para gestionar la contabilidad de sus explotaciones.

Tercero.– Presentación de solicitudes.

1.– Plazo: el plazo para presentar las solicitudes de selección como oficina contable es de veinte días hábiles tras su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Lugar: las solicitudes y la documentación exigida deberán presentarse en el Registro del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial,

tu behar dira (Lakua II eraikina, 2. solairua, Donostia kalea 1 zk., Gasteiz 01010). Telefonoa: 945 01 99 95. Faxa: 945 01 97 02.

3.– Administrazio-dokumentazioa: deialdi honetako bigarren puntuan zehaztutako dokumentazioaz gain, honakook ere aurkeztu beharko dira:

1) Eskabidea bere izenean edo ahaldun gisa sinatzen duen pertsonaren NANa.

2) Hitzarmena pertsona juridiko batek sinatzen badu, Merkataritzako Erregistroan jasotako eraketa-eskritura eta aldaketen eskritura; betiere aplikatu beharreko merkataritza-legeak betekizun hori eskatzen badu. Ezartzen ez badu, eskritura edo sorrerako agiria, aldaketen agiria, estatutuak edo sorrerako egintzaren berri ematen duen agiria aurkeztu beharko da; dena delako agiri horretan jarduerak zein arau bete behar dituen egongo da zehaztuta, eta, gainera, kasuan kasuko erregistro ofizialekoa izan beharko du.

3) Sinatzen duena ez baldin badabil bere izenean, edo sozietatea edo pertsona juridikoa bada, ordezkatzen duen sozietatearen edo entitatearen behar besteko ahalordetzea. Ahalordetze hori behar bezala inskribatuta egon beharko du, hala badagokio, Merkataritzako Erregistroan. Merkataritza Erregistroaren Arautegiko 94.1 artikuluan xedaturikoaren arabera, ahalordetze hori egintza jakin baterako bada, ez du Merkataritza Erregistroan jasota egon beharrik.

Dokumentazio hori egiaztatzeko jatorrizko agiriak edo administrazioak zein notarioak behar bezala konpultsatutako kopiak aurkeztu beharko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen aurka, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluekin bat etorriz, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren aurrean gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko otsailaren 21a.

Zerbitzu zuzendaria,
JOSÉ LUIS BARRENA MARTÍNEZ.

Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, sito en el edificio Lakua II, 2.ª planta, c/ Donostia-San Sebastián, 1, Vitoria-Gasteiz 01010. Tlf: 945 01 99 95. Fax: 945 01 97 02.

3.– Documentación administrativa: además de la documentación señalada en el punto segundo de esta convocatoria, se aportará:

1) Documento Nacional de Identidad de la persona que presente la solicitud en nombre propio o como apoderado/a.

2) Cuando el proponente sea una persona jurídica, la escritura de constitución y de modificación, en su caso, inscritas en el Registro Mercantil, cuando ese requisito fuera exigible conforme a la legislación mercantil que le sea aplicable. Si no lo fuere, la escritura o documento de constitución, de modificación, estatutos o acto fundacional en el que constaren las normas por las que se regula su actividad, inscritos, en su caso, en el correspondiente Registro Oficial.

3) Cuando no actúe en nombre propio o se trate de sociedad o persona jurídica, apoderamiento bastante para representar a la sociedad o entidad en cuyo nombre concurra. Dicho poder deberá estar debidamente inscrito, en su caso, en el Registro Mercantil. No obstante, si se trata de un poder para un acto concreto no será necesaria la inscripción en el Registro Mercantil, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 94.1 del Reglamento del Registro Mercantil.

Esta documentación deberá presentarse mediante original o mediante copia de la misma debidamente compulsada bien por la Administración o bien por notario/a.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Resolución podrá interponerse el recurso de alzada ante la Consejera del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con los artículos 114 y 115 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Segunda.– Publíquese la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de febrero de 2011.

El Director de Servicios,
JOSÉ LUIS BARRENA MARTÍNEZ.

NKAES-KO Ustiategien zerrenda 2011 / *Relación de explotaciones RICAV 2011*

L. H. *T. H.*	Ustiategiaren kodea *Código de explotación*	Ustiategiaren titularraren izen-abizenak edo sozietatearen izena / *Nombre y apellidos o razón social del titular de la explotación*	OTE	Ekonomia-dimentsioa EDUetan / *Dimensión Económica en UDEs*	ULU kopur *N.º de UTAS*	NKAESan parte hartutako urteak / *N.º de años de participación en RICAV*

II. ERANSKINA / *ANEXO II*

Nekazaritza ustiategien adostasuna / *Conformidad de las explotaciones agrícolas*

Kudeaketa zentroaren idazpurua / *Membrete del centro de gestión*
NKAES/RICAV 2011
Ustiategia/*Explotación*

Ustiategiaren zenbakia / *N.º de la explotación*: .....
Udalerria/*Municipio*: .....
Herri Gunea/*Entidad*: .....

USTIATEGIAREN JABEA / *TITULAR DE LA EXPLOTACIÓN*

ENA/IFK / *DNI/CIF* ..... Jaioteguna / *Fecha de Nacimiento*: .....

Deiturak eta izena edo Sozietatearen izena / *Apellido y Nombre o Razón Social*:

.....

Helbidea/*Dirección*: .....

Udalerria/*Municipio*: .....

Herri Gunea/*Entidad*: ..... Posta Kodea / *Código Postal*: .....

Lurraldea/*Territorio Histórico*: ..... Telefonoa/*Teléfono*: .....

EZAUGARRIAK/*CARACTERISTICAS*

Orientabide Tekniko-Ekonomikoa / *Orientación Técnico Económica:*

.....

Behean sinatzen duenak aipatutako Gestio-Zentruari gestio-informazioa emateko baimena ematen dio, 2011. urteko ENKAS ofizialerako-erako (Euskal Nekazaritzaren Informazio Sarea) behar diren datuak betetzeko. ENKAS eragiketa estatistiko bat da eta Sekretu Estatistiko baldintzapean dago eta apirilaren 23an emandako 4/1986 EAEko Estatistika Legeak eta Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruz abenduaren 13an emandako 15/1999 Lege organikoak arautzen dituen agindu guztien baldintzapean dago.	*El abajo firmante autoriza al Centro de Gestión citado el suministro de información de gestión con el objeto de cumplimentar los datos necesarios para la operación estadística RICAV (Red de Información Agraria Vasca) para el año 2011. La RICAV es una operación estadística sujeta a la norma de Secreto Estadístico y demás preceptos recogidos en la Ley 4/1986 de 23 de abril de Estadística de la CAV y a la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal.*
Era berean, eskabide honetan aurkeztutako datuak egiazkoak direla aitortzen du.	*Así mismo, declara que los datos contenidos en esta solicitud son ciertos*

Sinadura / *Firma*

……., 2011ko ……..... aren ..... an.
En ……, a …… de…… de 2011.